

DIRU ITURRIAK

Gizarte etxeetan emango ditugun tailerrak dohanik izango dira, estatuak gure zerbitzua kontratatu duelako eta beraz gure bezeroek, herritarrek, zerbitzu hori jasotzeko ez dute ezer ordaindu beharko, baina Gasteizko udalak eta gainerako udaletxeak 1800€ emango dizkigu hilero astean 2 orduko 4 saio eskaintzearen truke. Beste alde batetik, klase partikularrak ematen ditugun ordu baikotzeko 15€ izango dira. Gainera, gure zerbitzuak jasotzeko hainbat ikastetxek ere ordainduko digute. Ikastetxetan gure klaseak emateko prezioa 400€-koa izango da.

Dirua lortzeko, gehienbat hasieran, beste modu batzuk erabiliko ditugu. Adibidez, diru-laguntza bat eskatuko dugu, negozio berrientzat diru laguntzak daudelako. Diru laguntza hauek Eusko Jaurlaritzari eskatuko diogu. Kasu honetan 5000€koa izango da. Beste alde batetik, *Crowdfunding*-az baliatuko gara, hau da, interneten bidez dirua biltzeko egitego dugun finantzaketa kolektiboa. Bukatzeko, bankuan mailegu bat eskatuko dugu. Hasiera denez, inbertsio handia egin behar dugulako, beraz, 95.000€-koa eskatu dugu.

Gure partikularretako bezeroek bi modutan ordaintzeko aukera izango dute: diru efektiboarekin edo txartelarekin. Estatuak eta ikastetxeek berriz, kontuan sartuko digute diru guztia, kantitatea handiagoa da eta.